

ZENBAT BURU

Ana Artetxe

ERREPORTAIA

'Osasunkume

Bizitzaren

Abentura'

BARREN

1998ko ekainaren 12a
V. urtea - 240. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Fernando Loiola,
Kilimoiko
futbolari ohia



'Osasunkume'

Prebentzio Jaia Elgoibarren

"Eguneroko lanarekin eraikitzen da etorkizuna" S. Johnson

ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak

AUTO-ESKOLA



*10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 –

Euskaltegiaren publizitatea



ANA ARTETXE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

'Bailabliak' Plazan

Bazetozen Trinitadeak eta jai giroa somatzen zen, musika emanaldietarako Udalak jartzen duen kioskoa Plaza Handian, Aita Agirre plazan tiobiboak, txurreria,... Badira pare bat BARRREN aurtengo Nagusien Tanborradako hotsak kolokan zeudela irakurtzen hasi ginela. Jende faltan zeudela eta nahikoa agertu ezean, bertan behera geldituko zela.

Eta guk zera galdetzen genion geure buruei: lehenago ere Trinitateak demaseko jaiak ez badira ere, zerk emango dio herriari Trinitate bezpera gaueko jai giro berezi hori? Jaien egitarauak ekarri zigun erantzuna: larunbat gauez, Musika Bandaren eskutik, aspaldi desagertutako dantzaldia izango genuen. Dantzaldia esan dut,

baina 'bailabliak' esatea aproposagoa iruditzen zait, hitz hau erabiltzen baitugu elgoibartarrok. Zapatu gauean Aterpen afaltzen ari ginela, aldameneko mahatik bandako zenbait kide altxatu eta "bailabliak jotzera guaz" esan zuten. Beraz, litzentzia hau justifikatuta dagoela uste dut.

Esan bezala, Trinitate jaietako egitaraua irakurtzeak bakarrik piztuko zuen bakoitzaren barruan sentsazio ezberdinik, dantza egitea gogoko dutenetatik hasi eta aspaldi bateko urteak gogorarazten zizki-

gutenetaraino.

Urte asko dira baina ondo gogoan dut. Han egoten ginen gu Bandakoak aulkiak eta atrilak jartzen hasten zirenerako. Han egin genituen gure lehen dantzak mutilekin. Antzinako gauzak beti hunkitasunez gogoratzen baditugu ere, lehenago hura berriz bizi izatea benetan da eskertzekoa, urteen poderioz gertatzen diren aldaketak oso gustuko ez ditugunean, batez ere.

Heldu zen larunbat gaua, eguraldia ona eta giroa aparta. Musika Banda 'bailableak' jotzen ari zen. Bitartean, dantzarako gogoak zutenek toki ederra zuten 'agarrauak' dantzatzeko. Musika entzutea nahi zutenek buruko minik izateko arriskurik gabe entzun zezaketen. Dan-

tzan zein entzuten aritu, gogoak zetorrenean, hitz egiteko aukera zegoen, belarrira berba egin beharrik gabe, eta hau dena toki paregabean, gure herriko Plaza Handian.

Joan dira aurtengo Trinitateak, baina etorriko dira hurrengoak. Zeinek daki, agian, Tanborrada izan ala ez, hemendik hogeitaurtera, Trinitate bezperako tradiziozko gaua Musika Bandaren dantzaldiarekin hasi zen urtea bezala gogoratu ahal izango da 1998a.

"Urte asko dira baina ondo gogoan dut. Han egoten ginen gu Bandakoak aulkiak eta atrilak jartzen hasten zirenerako. Han egin genituen gure lehen dantzak mutilekin"

Barrak, Birak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **943 74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **943 74 37 04**
Faxa: 943 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA Miren Moreno
MAKETATZAILEA Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,
 Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,
 Mari Karmen Elorza,
 Maider Elustondo, Jon Eugi,
 Koldo Galdona, Aintzane Garate,
 Jon Garate, Juanito Gorostiza,
 Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,
 Iñaki Jaio, KOKOE,
 Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,
 Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,
 Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,
 Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Zentral eolikoak

Eragin paisajistikoa, nahiz eta bortitza izan, ez da bakarra. Derrigorrezkoa da enpresa eta talde industrial handiek energia eolikoari ezartzen dioten eredu desaroilista kritikatzeari, horren oinarria potentzia handiko aerosorgailuak eta zentralizazioa baitira.

Energia eolikoaren aldarrikapenak hasieratik bereizten zituen ezaugarri ekologiko eta alternatibo guztiak galtzen ari dira erabat; honen indar iraultzailea deszentralizazioan datza, eta ohiko abiadura txikiko haizearekin energia ekoizteko gauza diren askoz potentzia gutxiagoko aerosorgailuetan.

Berriro ere, kapital handiaren logika desaroilistak energia iturri bigun, estentsibo eta alternatiboa zena energia iturri gogor, zentralizatu eta monopolizatu bihurtu du.

Betidanik, Espainiako Estatuan oligarkiaren tratu-gune garrantzitsuen sektore elektrikoa izan da, merkaturatu kontrolpean duten enpresekin, IBERDROLAekin adibidez (BBVekin bat eginda). Iberdrola da plan eoliko hauen sustatzailea, nahiz eta itxuraz, bakoitzak bere aldetik lan egiten duen, izen diferenteko enpresak osatuz hainbat autonomi erkidegotako gobernuekin. Hortaz, aspalditik energia nuklearraren alde jo duten elkarte elektrikoen, Iberdrolak, adibidez, iharduera nagusia armagintza duten talde industrialek, GAMESA modukoak, eta BBVk, haizearen indarra monopolizatu nahi dute; euskal mendiko paisaia errotik eta betirako aldatuz, eta energia eolikia, izaera alternatiboa kenduta, etekina lortzeko baliabide bihurtuz.

Hego Euskal Herriko mendi gailurretako 374 km. hartuko dituzten 3.200 aerosorgailu ezarri nahi dituzte. Honek guztiak, euskal mendi eta mendilerroen industrializazioa suposatuko luke. Beraz, lurrari erasotzen dion eta gizabanakoen eta taldeen autonomia-aren ginetik, gero eta bilduago den botereenganako otzantasuna handitzen duen eredu desaroilistari gure

amore-emate gabeko oposizioa azaldu nahi diogu. Energia garbi eta alternatiboen laguntzailearen mozorroa jantzi nahi diete ekimen enpresarial erasotzaile horiei, eta benetan nahi duten gauza bakarria merkatu energetikoa kontrolpean edukitzea da. Enpresa horientzat, gakoa, Europako Batasuneko merkatu elektrikoen liberalizazioaren ondoriozko konkurrentziaren borrokan postu bat irabaztea da.

AHTren Aurkako Asanblada

Autotxokerik ez

Victoriano Gomez alargunaren semeak gara, eta 30 urte daramatzagu autotxokeekin Elgoibarrera etortzen Trinitate jaietan. Herritarrak konturatuko zineten dagoeneko aurten ez garela izan. Gu Matienan bizi gara eta askotan etortzen gara Elgoibarrera kamioia konpontzera. Herritar asko ezagutzen ditugu eta horietako batzuekin topo egin nuen beste egunean. Denek galdera bera egin zidaten: "zergatik ez zarete aurten Trinitate jaietan etorri?". Ba, erantzuna oso erraza eta sinplea da. Udalak ez digu aurten etortzeko baimenik eman; nahiago izan du beste barraka mota batzuek ekartzea. Aita Agirre plaza inguruan ibili bazarete, barraka guztiak ume txikientzat zirela ikusiko zenuzten; 10 eta 14 urte bitarteko haurrentzat ez zegoen ezer. Autotxokeek estimazio handia izaten dute Elgoibarren eta euskal musika jartzen dugun barrakak gara. Gainera, txurreroek eta beste barrakeroek esan izan digute, autotxokeak egoten direnean euren barraketan ere jende gehiago ibiltzen dela.

Gure asmoa gorabehera hau argitzea besterik ez zen. Mila esker elgoibartar guztioi 30 urte hauetan gudan jarritako konfidantzarengatik.

**Victoriano Gomez-en
 alargunaren familia**

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

KEXAK

◆ **Gazte batek deitu digu mesedez Madalako iturriari erretratua ateratzeko eskatzeko.** Iturria horrela ezin dela eduki adierazi eta bi gauza eskatu nahi ditut: bat, apurto duenari hurrengoan kontu gehiagorekin ibiltzeko (“apropos ez zutela apurto pentsatu beharko dugu, ezta?”), eta bi, dagokionari berehala konpontzeko.



TXALOKAK

◆ **Herritar batek baino gehiagok deitu digu Udala Musika Banda txalotzeko. Zapatu gauean, hilak 6, dantzaldia eskaini zuten Plaza Handian eta benetan oso ondo pasatu omen zuten.** Batek zera esan digu: “oin dala 25 urte dantza ei-txen genduneko epokia berriz bizi izan gendun. Abestixak ere ordukuak zian, ‘Caminito Verde’ eta holakuekin ein gendun dantza. Oso ambiente ona jarri zaben”. Beste herritar batek proposamen hau dauka Udalarrentzat: “Horren gauza politxa izan zanez eta jendiak hain ondo pasau zabala ikusitxa, uda partian, hilian behin edo, Bandiak dantzaldixa ematia idea ona beintxatzen jata. Ez dakitx posible izango dan baina jendiak gustura hartuko leuken dudarik ez dakat”.

◆ **Elgoibartar batzuek Vicky-ren aldeko kanpaina antolatu duten herritarrak txalotu nahi dituzte.** “Gaixo dagoen herritar batenganako elkartasun handia erakutsi digute herritar hauek, benetan da txalogarria egiten ari diren lan guztia (bai errifak saltzen, bai txoznan lanean,...). Musutruk egindako lana da, trukean ezer ez espero gabe. Zorionak eta segi aurrera!”.

BAI, ESAN?



Koro Aldaz

Organu Emaileen
Elkartekoa

Ekainaren 6an Nazioarteko Organu Emaileen Eguna izan zen. Egund hori aitzaki hartuta, mahai informatiboak jarri zituzten Elgoibarren. Denok dakigu zein garrantzitsua den organu emailea izatea baina askotan intentzioak intentzio hutsean geratzen dira. Organu Emaileen Elkarteko kidea den **Koro Aldaz** mahai informatibo hauen atzean ikusi genuen. Berarekin aritu gara berbetan.

- **Giltzurrun eta Bihotz Emaileen Elkarteek antolatutako zenituzten mahai informatiboak. Jenderik hurre-ratu al zen?** - Bai, beti arrimatzen da jendea. Jartzen ditugun mahaietan organu guztien transplantatuak egoten saiatzen gara, jendea edozeini gerta dakiokkeen zer-bait dela ohar dadin. Zalantzak argitu eta emaile izateko gerturatzen dira batez ere. Hala ere, farmazietan urte osoan egoten dira emaile egiteko txartelak.

- **Ba al dago Elgoibarren Organu Emaile Elkarterik?** - Ez. Daudenek Gipuzkoa mailan funtzionatzen dute. Elgoibarko transplantatuak egun konkretuetan elkartzen gara.

- **Ba al duzue Elgoibarko organu emaileen daturik?** - Ez, ez dago daturik. ALCER elkarteak daruma emaileen errolda eta momentu honetan guztira 43.000 pertsonatik gora daude. Donatzeko momentuan erabakitzen da zein organu eman.

- **Zein organu dira premiarik larriena dutenak?** - Normalean bihotza eta gibela izaten dira, giltzurrunarekin arazoak dituztenek beste tratamendu batzuk ere egin ditzakete, adibidez dialisia.

- **Zer egin behar da organu emailea izateko? Edozein izan al daiteke emaile?** - Emailea izateko lehenik eta behin garrantzitsua da erabaki hori familiari eta lagunei azaltzea, azken erabakia familiaren esku baitago. Lehen esan dudana bezala, farmazia guztietan eskura daitezke emaile egiteko txartelak eta edozein izan daiteke emaile.



I. URTEURRENA

1997ko ekainaren 10ean, 87 urte zituela hil zen
JOSE MARIA ANSOLA GOENAGAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



OSASUNKUME



Bizitza abentura Osasunt- sua

“Osasunkume Bizitzaren Abentura” jai erraldoia Elgoibarren ospatuko da datorren igandean, ekainak 14. Osasunkume programa orain dela 9 urte jarri zen martxan eta tarte honetan Euskal Autonomi Elkarteko 30.000 ikaslek hartu dute parte. Horien artean Elgoibarko hiru ikastetxe-ak aipa ditzakegu, Herri Eskola, San Bartolome Ikastola eta Pilar. Drogomenpektasunen prebentzioa lantzea du helburu Osasunkumek, besteak beste lehiaketak antolatzen direlarik. Ikasturte amaieran sari banaketa egiten da eta aitzakia hori hartuta, urtero herri bat aukeratu eta festa handi bat ospatzen da. Aurten, esan bezala, Elgoibarren izango da eta besteak beste, pailazoak, haur parkea, antzerkia, zozketak eta bestelakoak egongo dira.

Osasunkume programa L.H.ko 3., 4. eta 5. mailako ikasleei zuzendua dago. Drogomenpektasunen prebentzioa lantzen du eta Edex kolektiboaren ekimenez jarri zen martxan duela 9 urte, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailak babestua dago ekonomikoki eta ehundaka udaletxe eta ikastetxeren inplikazio zuzena du.

Osasunkume programaren bidez neska-mutilek, txikiak direnetik, hainbat balore barneratzea nahi da, haurrak osasuntsu egotearen garrantziaz ohar daitezten eta osasunean eragiten duten faktoreak ezagut ditzaten. Bide batez, osasuna mantentzen ahalegindu eta beharra dutenean laguntza eska dezatela jakinarazi nahi zaie. Izan ere, Osasunkume hipotesi batzuetatik abiatzen da behar bezalako hezkuntza jasotzen duen haurrak drogomenpektasunen aurrean defendatzeko aukera gehiago izango dituela esateko. Esaterako, “osasuna eta autonomia babestu eta errespetatu behar direla uste duten hurrek, hauen aldeko jarrera baikorra mantentzen dutenek, eta osasuna lortzeko eza-gupen egokiak eta trebetasun eraginkor-rrak menperatzen dituztenek, drogekin

lotutako arazoetatik ateratzeko aukera gehiago izango dute”.

Kromoan bidez

Osasunkume programaren oinarria album eta kromo batzuk dira. Ikasle bakoitzak album bat jasotzen du eta eta bertan kromoak jarri behar ditu. Kromo horietan Osasunkumeko maskota agertzen da neska-mutiko taldeekin batera eta hauek hainbat eta hainbat istorio bizi dituzte familian, ikastetxean eta auzoan. Horrela, istorio

OSASUNKUME

txiki hauen bidez haurrak egoera desberdinak ikusten ditu eta horietan nola jokatu ikasiko du. Kromoetan agertzen diren egoeren bitartez lau arlo lantzen dira: autoestima, bizitzarako trebetasuna, drogak eta bizitzako ohiturak. Irudi eta testuen bidez norberarenganako begirunea, desafioei nola aurre egin, tentsioa erabiltzen jakin, harremanak izan, erabakiak hartu, sendagaiak, alkohola, tabakoa, jarduera eta atsedena, elikadura, segurtasuna eta garbitasuna lantzen dira.

Ikasleen motibazioa bultzatzeko lehiaketak

Ikasleen interesa sortu eta bultzatzeko hainbat ekintza antolatzen dira ikasturtean zehar. Horrela bada, lehiaketa nagusi bat egoten da saria ikasgela osoarentzat Eurodisneyra irteera delarik. Ikasgela bakoitzak lan bat prestatu behar izaten du eta 20 onenentzat saria dagoen arren, lan onenak jasotzen du sari nagusia, aipatutako bidaiara, alegia. Hala ere, bestelako zoketa eta opariak ere banatzen dira eta ikasturtean zehar bisitalditxoak egiten ditu Osasunkumeren maskota herriz herri.

Irakasle eta gurasoen partehartzea

Programa honetan ezinbestekoa da guraso eta irakasleen partaidetza. Irakasleek ikasgelan lantzen dituzte hainbat gai ikasleekin eta motibatu egin behar dituzte. Horretarako gida-liburu bereziak daude irakaslegoari zuzenduak. Era berean, gurasoak ere inplikatu nahi dira, hezkuntza ez baita ikastetxera mugatzen eta auzoan eta etxean ere egiteko asko dagoelako. Gurasoei zuzendutako bilera bereziak egiten dira eta aldizkariak ere badaude nahi duten guztientzat.

Herri Eskola

Lola Sanchez da Herri Eskolan Osasunkume programaren arduraduna. Berak esan digunez 1990/91 ikasturtean jarri zuten martxan Osasunkume euren ikastetxean. "Ohiturak lantzen dira eta hori oso garrantzitsua da haurren heziketan". Gainera, "kromoen bidez lantzen den metodologia izanik, benetan ludikoa eta arina da ikasleentzat, jolas bat izango balitz bezala hartzen dute". Astean egun bat eskaintzen diote Osasunkumeri, "segun eta zein den aztertu behar dugun gaia, kromoez gain beste jolas batzuk ere planteatzen dizkiet". Lolak balorazio positiboa egiten du, "hainbat gauza ikasi dituzte, esaterako, ez dituzte lurrera botatzen papearak". Baina bere iritziz, "jarraipena izan behar duen programa da. Gurekin daudenean badakite nola jokatu behar duten, baina kalera ateratzean gauzak beste era batera izan daitezke eta hori kontrolatzea zailagoa da".

San Bartolome ikastola

Mari Kruz Intxaustik esan digunez, 1990/91 ikasturtean sartu ziren programa honetan, "garai hartan hainbat gai nola landu aztertzen ari ginela programa honen berri eman zigten Udaletxean. Zalantzarik gabe animatu ginen". Lehiaketa antolatzea eraginkorra iruditzen zaio Mari Kruzi, "motibazio bat behar dute ikasleek eta lehiaketek beti pizten dute interesa". Ikastolak duela hiru urte lehen saria jaso zuen, Eurodisneyra bidaia, hain zuzen ere. Mari Kruzek uste du "badela ordua metodologia berritzeko. Irakasleok urte asko daramatzagu metodologia berdinarekin eta guk ere motibatuta egon behar dugu ikasleei hori transmititzeko". Era berean, gurasoen aldetik ere inplikazio gehiago egotea eskatuko luke Mari Kruzek, "haurren hezkuntza guztion lana baita". Edonola Mari Kruz pozik dago Osasunkumerekin, "telebistan ikusten dituzten gauza txarrek eragina badute haurrengan, gauza onek ere eragina dutela konbentzitu nago".

Pilar ikastetxea

Agustin Rubiorekin izan gara Pilar ikastetxean eta azaldu digunez, hauek ere hasiera-hasieratik daude Osasunkume programan sartuta. "Interesgarria iruditu zitzaigun eskolako eguneroko ikasgaietan aztertzen ez diren hainbat balore lantzeko aukera ematen duelako", aitortu digu Agustinek. Ikasleek oso gustura hartu dute Osasunkume, "beste ikasgaiekin ez bezala, Osasunkume ea noiz landu behar dugun eskatzen dute eta hori oso adierazgarria da". Gainera, "autoestima, harremanak eta bestelako puntuak lantzen dira, elkarbizitarako oinarriak emanez". Dena dela, Agustin, Mari Kruzen iritzi berekoa da metodologiari dagokionean. "bada ordua berrikuntza batzuk egiteko". Gurasoei dagokienean, inplikazio zuzenagoa eskatzen die Agustinek, "eskolako lana balitz bezala hartzen dute eta nik uste dut etxean ere landu behar direla gai hauek". Gaur egun haurrek informazio



Herri Eskolako ikasleek gustura lantzen dute Osasunkume.



San Bartolome Ikastolako ikasleek hiru sari jaso zituzten iaz. Orain dela hiru urte Eurodisney-ra bidaia eskuratu zuten.



Pilar ikastetxeko ikasleak Osasunkume programako album-arekin.

Ba al daukazu Hundialak ikusteko asmorik?



IÑAKI ARANZAMENDI
13 urte, ikaslea

Bai, partidu dan-danak ez, ze asko izango dia, baina ahal doten guztiak bai. Nere faboritua Brasil da, batez ere Ronaldogatik.



MAJE ARRESE
45 urte, langabetua

Ez, inolaz ere ez. Telebistan beste kate batzuk ikusi edo irakurri edo beste zerbait egingo dut. Badakit Etxeberria selekzioan dagoela baina, hala ere, ez noa ikustera.



CELSO MIGUEZ
59 urte, jubilatua

Parean tokatzen bazait bai, batez ere Espainiako selekzioak jokatzeko bada. Espero dut Espainiak iazko papera egitea gutxienez eta, posible bada, zerbait gehiago lortzea.



ROBERTO SOL
66 urte, jubilatua

Ez, sasoi batean, anaiak futboleko jokatzeko zuenean, jarraitzen nuen baina gaur egun ez daukat interesik. Hala ere, faboritoen artean Brasil eta Espainia daude niretzat.



MAITE CID
22 urte, montadorea

Ez, ez daukat interesik futbola ikusteko alferrik galtzeko denbora. Parean tokatuz begiratuko nuke eta Etxeberriak golen bat sartuz gero hobe, baina ez interesik dudalako.



JULI GODOY
39 urte, sukaldaria

Ez zait futbola gustatzen eta ez daukat asmorik. Ondo legoke Espainiako selekzioak irabaztea bertokoak ere daudelako, baina ez zait gehiegi inporta.



**Gabiola
GESTORIA**

Errenta Aitorpena egiteko azken eguna ekainaren 25a
Guk lagunduko dizugu **LEHEN BAIT LEHEN EGITEN**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

Jon Aranoa
Guillermo Torres



**Albaitaritzza
klinika**



San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 943 74 07 04 - 908 87 39 40

*Apre obetatu udakia gida
baimena ateratzeko*



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

*bona ematerakian %10eko
beherapena gaste
tartelarekin*

ISPILUARI BEGIRA



Zigor Unamuno.

ALDIBI AUTOAKekoak

- Zure bizitzako zein unetan zapalduko zenuke azeleragailua? - Soldautzan.
- Zein esperientzia biziko zenuke frenorik ipini gabe? - BBB eta UBI ikasturtien bitxartekua.
- Zuen etxean nor da gidaria?
 - Ama, etxe guztietan bezela.
- Errobera gainean noraino joango zinateke?
 - Amazonas ingurua ezagutzeko gogua euki dot beti.
- Bizitza eskaparate bat balitz, zer erosiko zenuke? - Osasuna eta dirua.
- Zerk jartzen du martxan zure motorra?
 - Nere lagunek, familiak...
- Nor eramango zenuke gustura kopiloto?
 - Nere neskalaguna.
- Auto bat bazina, zein nahi zenuke izan?
 - Mercedes bat.
- Zein da zure "tubo de escape" a?
 - Nere inguruan dauan jendiak aguantau bihar izaten dau nere umore txarra.
- Zerk ateratzen dizkizu txispak? - Intolerantziak.
- Zer egiten duzu inork ikusten ez zaituenean?
 - Atzazkalak jan, adibidez.
- Zer da zuretzat etorkizuna?
 - Arazorik gabe bizitzia beti.
- Eta aurrerapena? - Bestiez ikasi eta gauza onak hartuz zure ekintzak ahalik eta onduen itxia.
- Zure bizitzako lema?
 - Txapela buruan ibili munduan.
- Zer egiten duzu auto ilara luze batean geratu behar izaten duzunean?
 - Haserretu. Hemen ez gaude ohituta.
- Garraiorik gustukoena? - Trena.
- Bete zaizun ametsik?
 - Asko: lana eukitzia, neska on bat, lagun jatorrak...
- Astebururako planik onena?
 - Pelikula bat ikusi eta gero juerga bat bota.
- Zer aseguratuko zenuke zure bizitzatik?
 - Bizitza bera, daukagun bakarra da eta.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
943 74 18 91

**AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGUROAK**



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 • ☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

OLASO
TABER-

Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -
- LARUNBATETAN -
- Rabak • Olagarroa • Fritoak
- GAUEZ -

Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00etatik aurrera

● 30 enpresa ari dira parte hartzen IMHren Formazio Programan

Hogeita hamar enpresa inguru ari dira parte hartzen Makina Erreminta Institutuak antolatutako Formazio Programan. IMHko 71 gaztek enpresa horietan praktikak egiten dituzte egun osoko lanaldian. Ikasle hauek Diseinu, Fabrikazio eta Mantenimendu eta Muntaia adarretakoak dira. IMHrekin elkarlanean ari diren enpresak erreminta makinaren sektorekoak dira: Grupo Danobat, Grupo Goratu, Etxe-Tar, Kondia, Alfa, Mupem, CME eta Agme, besteak beste. Praktikak amaitu ostean, gazteok Txandakako Injinerutza ikasketak egiten hasi edo lan munduan sartzeko aukera izango dute.

● Haritz Dantzari Taldekoak Segovian eta Donostian izango dira

Domekan, hilak 14, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek Gipuzkoako dantzak aurkeztuko dituzte Donostiako Konstituzio plazan izango den ekitaldian. Izan ere, Donostiako Goizaldi Dantzari Taldeak 50. urteurrena betetzen du eta Irungo Kemen, Oreretako Ereintza eta Donostiako Goizaldi Taldekoekin eta Eskolakoekin batera egingo dute dantza elgoibartarrek. Hilaren 20an, zapatua, Eusko Jaur-laritzak gonbidatuta, Haritz Taldeko zenbait kidek eta Udal Txistulari Taldeak Segovian izango den Europako Musika Eguneko egitarauan parte hartuko dute Kataluniako eta Castillako taldeekin batera.

Hainbat herritar zaurituak izan ziren joan den zapatuko istiluetan

5 pertsona Osasun Zentrora eraman behar izan zituzten

Joan den zapatuan, Iñaxi Zeberio ustezko ETAKidearen hilketa salatuzko zonaldeko HBK deitutako manifestazioaren amaieran istilu larriak gertatu ziren. Herriko kaleak zeharkatu ondoren manifestariak Txankakuako zubian zeuden ertzainengana hurreratu ziren eta, irainak tartean, aurre egin zieten. Berehala, gomazko pelotak jaurtzen hasi ziren ertzainak. Plaza Handia jendez gainezka zegoen, eta bakoitzak ahal zuen moduan topatu zuen babesa. Gomazko pelotek eragindako kolpeen ondorioz, bost pertsona Osasun Zentrora eraman zituzten Udaltzaingotik jasotako datuen arabera. Zaurituen artean adineko pertsonak daude. Bestelako kalterik ere izan zen; Errosario kaleko Kutxako eska-paratea apurtu egin zuten istiluak izan ziren bitartean.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak ohar bat bidali digu "Ertzantzaren karga bel-



durgarria" salatuz. "Ertzantza hau ez da herriarena, jendea egurtzen eta abertzaleak hiltzen ditu. Horixe da Ertzantza, Josu Muguruza hil zuen Ynestrillas-en eskolta". Elgoibar, Orereta eta Gernikan gertatutakoa "ez da harriztekoa, ekintza hauek 'dónde las dan las toman' eta 'el que con fuego anda... se quema' eta horrelakoak esanez justifikatzen baitituzte".

Real Sociedad-en bandarako himnoa estreinatuko du Musika Bandak

R. Sabadié, 'Txuri-Urdin'aren egilea estreinaldian izango da

Bandaren hileroko emandariaren barruan, Real Sociedad taldearen 'Txuri-Urdin' himnoaren bandarako bertsioa estreinatuko da domekan, hilak 14 Herriko Antzokian. Ricardo Sabadiék (argazkian) Real Sociedad-en himnoa egin zuen duela 25 urte. Bandarentzako bertsio bat egitearen ideia iaz Anoetan Orfeoia eman zuen kontzertuaren ostean sortu zen. Bertan, orkestarako eta kororako bertsioa abestu zuen orfeoia. Elgoibarko Bandako zenbait kide bertan egon ziren eta bandarako bertsioa egiteko proposatu zioten Sabadiéri. Bandakide batek adierazi bezala, "Sabadiék bandarako gidoi bat eginda zeukala esan zigun baina instrumento bakoitzarentzako partiturak egitea falta zen. Lan handia zenez, guk




geuk egitea proposatu genion". Esan eta egin. Baldintza bakarra jarri zuten elgoibartarrek: "estreinaldi mundiala Elgoibarren izatea". Dagoeneko beste herritako bandak jarri dira harremanetan elgoibartarrek partiturak eskuratzeko baina Elgoibarko Bandak estreinatu arte ezingo dute jo. Bertsio honen estreinaldia Saba-

diék berak zuzenduko du. Ondoren, Gillermo Garatek oroigarri bat emango dio musikagileari. Bandak joko dituen gainerako piezak hauek dira: *La Alhambra*, *De Kaliff van Bagdad*, *La hijas del Zebedeo*, *Largo* eta *Happy Sound selection n°1*.

Bestalde, Elgoibarko Musika Bandak Eltziegion (Araba) kontzertua emango du datorren uztailaren 4an.

Vickyren aldeko diru bilketa martxa onean doa

Vicky Alcalderen aldeko diru bilketa oso ondo doala jakinarazi digute antolatzaileek. Dagoeneko 300.000 pta. inguru lortu dituzte errifekin eta txoznarekin 500.000 pta. fakturatu dituzte, beti ere, gastuak deskontatu gabe. Honez gain, donazioak ere jaso dituzte herriko pertsona, erakunde eta enpresen eskutik. Euren esanetan, “asteburuan txozna berriz zabaltzeko asmoa dugu”. Domekan, hilak 14, Osasunkume Prebentzio Jaia ospatuko denez, alkoholik gabeko edariak bakarrik salduko dituzte. “Errifekin, donazioekin eta txoznarekin pare bat hilabeteko tratamendurako adina diru ateratzeko asmoa dugu. Oraindik ez dakigu noiz joango den Vicky ospitalera, itxaron-zerrenda baitago, baina lehenbailehen izatea nahi dugu”. Vickyren aldeko diru eskearen antolatzaileak oso pozik daude herritarrek izan duten erantzunarekin, “herritarren bihotzak ikututa daude, orain poltsikoak ikutu behar dira. Jasotako laguntza bihotzez eskertu nahi dugu. Denak oso ondo portatu dira gurekin, dendariak, herritarrak,... denak. Hala ere, laguntzen jarraitu beharra dago, ez baitakigu noiz arte luzatuko den tratamendua”.



Alazne Escudero, Gipuzkoako Bertso Txapelketako finalean

San Bartolome Ikastolako 55 ikasle Oñatin izan ziren maiatzaren 22an Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 19. edizioan, Bertso Paperen atalean. Maiatzaren 29an, berriz, Bapateko Bertsoen finala eta Bertso Paperen sari banaketa izan zen Orioko frontoian. Argazkian, Andoni Egaña bertsolariarekin agertzen den Alazne Escudero 10 urteko elgoibartarrak, bere mailan emandako aipamena merezi izan zuen, marrazki bizidunei buruz egindako bertsoengatik.

DBHrako matrikula zabalik Helduen Hezkuntzan

Hemendik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen hasiko dira Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrenean kokatzen den Helduen Hezkuntzako zentroan (EPA). Aurrermatrikula zabalik dago eta izena emateko 943 74 08 80 zenbakira deitu arratsaldean edo P. Muguruza ikastetxetik pasatu. Epea hilaren 19an amaituko da. Aurten 30 elgoibartar aritu dira Helduen Hezkuntzan.

Jaietan txoznak jartzeko eskaerak

Udal Kultura Sailak jakinarazi duenez, San Bartolome jaietan txoznak jartzeko eskaera epea hil honen 26an amaituko da. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00era bitartean Kultur Etxera eraman edo bertako buzoian utz daitezke. Epea kanpoko eskaerarik ez dute onartuko.

Urtailen euskara ikastaroak AEKn

AEK Euskaltegiak euskara ikastaroak antolatu ditu uztailera. 2, 3, 4 edo 5 ordukoak izango dira eta goizez emango dira. Ikasleen euskara-errekuperazioak eta irailera EGA prestatzeko aproposak izan daitezkeen ikastaro hauetan izena emateko AEKtik pasatu edo 943 74 13 32 zenbakira deitu hilaren 26a baino lehen. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia doan izango dute Udalaren dirulaguntzari esker.

Udalar en dirulaguntzak bar netegietara joateko

Udaleko Euskara Batzordetik esan digutenez, Udalak dirulaguntzak emango ditu barnetegi batean euskara ikasteko dakarren gastuei aurre egiteko. Egonaldiaren gastu osoaren %40a (30.000 pta. gehienez) ordaintzeko dirulaguntza emango du Udalak ikasle eta langabetuentzat. Aurten 12 urtetik 16 urtera bitartekoentzat ere izango dira barnetegiak. Dirulaguntza jaso nahi duen herritar orok Udala Euskara Zerbitzuko teknikariarekin hitz egin dezake edo 943 74 43 66 zenbakira deitu.

Bizkaiara irteera Jubilatuen Etxetik

Uztailaren 1erako irteera antolatu du Jubilatuen Etxeak. Bizkaiara zehar izango da bidaiaria eta, besteak beste, Bilboko Guggenheim museoa, Bermeo eta Lekeitio bisitatuko dituzte. Txangoaren zenbatekoa 2.500 pta.koa da baina Guggenheim museorako sarrera aparte ordaindu beharko da. Izena emateko Jubilatuen Etxera jo.

Gaixoen familientzako opor programa

Udal Ongizate Sailak, familiako kide ezinduren bat zaindu behar duten familien bizi-kalitatea hobetzeko programaren berri eman du. ‘Uliazpi Fundazioa’k gestionatuta, opor edo atsedeen programa honen asmoa familiei laguntza ematea da. Laguntza honi esker, familiak opor labur batzuk hartzeko aukera izango du. Zerbitzu hau abuztuaren jarriko da martxan. Informazio gehiago eskuratzeko Udaleko Ongizate Sailera zuzendu (943 74 10 08).

ANTZERKIA

(profesionala)



AIRPORT

AIRPORT SUSPECT CULTURE

HEGAZKINERA SARRERA

Bidaiariak iritsi eta abiatzen dira, hegaldiak atzeratzen, "duty free"an erosketa egin dago eta maleta bakarti bat ekipajeen bilketa-zintan doa. Lotura bitxien, komeriaren eta ikaragarritzko giza-istorio ilunen nahaspila.



Euskal Herriko antzoki onenetan antzeztu ondoren, azken emanaldia Elgoibarren izango da.

EZ GALDU AUKERA!

BIDAIARIANTZAKO INFORMAZIOA

Ostirala **12** / Gaueko **22:30**ean
Herriko Antzokian / Sarrera: **500** pta.



BARREN

Uko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 45. GEHIGARRIA



Goian ikusten direnak Herri Eskolak egindako irteera batzuen irudiak ditugu. Goikoan, Urkiola-Urkiolamendira antolatu zuten txangoa ikus dezakegu. 60 pertsona elkartu ziren guztira, guraso eta

ikasleen artean. Gainontzekoak, Sastarrain eta Lesakara egindako irteeren argazkiak dira. Sastarrainen zumezko otarrak nola egiten ziren ikusi zuten eta animaliekin egoteko aukera ere izan zuten.

Jakitunen eskutik

Autoestima

FELI ALBERDI PSIKOLOGOA

Pertsona batek berarekiko daukan baloraziozko jarrerari autoestima deitzen zaio. Ez da jaiotzatik ekartzen dugun zerbait, bizitzan zehar garatzen den nortasunaren faktore garrantzitsu bat baizik.

Familia, eskola eta gizarte inguruko pertsona esanguratsuen eraginari esker eraiki eta definitzen da autoestima.

Ikertzaile batzuek "ahozko inguruak" deitzen denak duen garrantzia azpimarratzen dute. Komunikatzeko erabiltzen ditugun hitzek zein isiluneez garrantzi handia dute. Umeei hitz egiteko erak, zer esaten zaien eta nola entzuten zaien garrantzi handiko jarrerak dira, horien arabera inguru "positiboa" edo "negatiboa" sortuko baita.

INGURU NEGATIBOA

- Helduek, presa dutelako, lanpetuta edo nekatuta daudelako, interes gutxi jartzen dute haurren ekintzetan.

- Helduek ez diote kasurik egiten umeez esaten dutenari. Ez dute arretaz entzuten eta edozein modutan erantzuten dute.

INGURU POSITIBOA

- Helduek hitz hunkigarriak erabiltzen dituzte umeei. Hauen gauzez interesatzen dira.

- Helduek haurrak errespetuz tratatzen dituzte, iraindu gabe.

Autoestima aldatzea ez da erraza. Atzitik, denbora dexente daraman prozesua da. Umeek esperientzia positibo asko izatea beharrezkoa dute autoestima hobetzeko. Izaten dituzten arrakastak, handiak nahiz txikiak izan, besteei kontatzea oso garrantzitsua da. Egindako gauzengatik besteen onspena jasotzea balore handikoa da. Honek norberaren pertzepzio positiboa eragiten du eta autoestima indartzen doa.

Zer iritzi daukazu*ekologistei*..... buruz?



Lanbide oso ona da. Niri asko gustatuko litzaidake ekologista izatea Doñana salbatzeko.

ANDRES CONDE, 9 urte



Dena birziklatu eta mendian zikinkeriarik ez botatzea da. Batzuk taldeetan daude guztiok izan gaitzen ekologista.

JENNIFER CHAPARRO, 12 urte.



Nik ez dut nahi zuhaitzak apurtzea oxigenoa ematen digutelako. Aupa ekologistak!


JULEN SALABERRIA, 7 urte



GEMMA FER-
NANDEZ
13 urte

Galde debalde

- 1- SuperBat-eko bazkide al zara?
- 2- Zein aldizkari irakurtzen duzu?
- 3- Egunean zenbat bider garbitzen dituzu haginak?
- 4- Euria ala eguzkia nahiago?
- 5- Okela ala arraina?
- 6- Ba al daukazu maniarik?
- 7- Zein da munduko mutilik/neskarik politena?
- 8- Gustuko duzun hitza?



MIKEL ARRIE-
TA
7 urte

- 1- - Ez.
- 2- - BARREN eta komikiak, Zipi eta Zape eta holakuak.
- 3- - Bi, goizean eta gauean.
- 4- - Eguzkia, hondartzara joateko.
- 5- - Biak jaten ditut baina nahiago dut okela.
- 6- - Bai, gauero ohean sartu aurretik armairuko atean ixten ditut.
- 7- - "Los vigilantes de la playa" telesailko rubixua.
- 8- Maitasuna.

- 1- - Bai, urtebetetzean zoriondu egiten naute.
- 2- - BARREN eta Egunkaria.
- 3- - Hiru, gosalduta eta gero, bazkalduta eta gero eta afalduta eta gero.
- 4- - Eguzkia, hondartzara joateko.
- 5- - Okela, arraina jaten dut baina gutxiago gustatzen zait.
- 6- - Ez.
- 7- - Erregina.
- 8- - Zuhaitza.

Zer dira... zeloak.....?

DANIEL VIÑARAS 10 URTE



Norbaitek emazte-
gaia kentzen dizu-
nean sentitzen duzu-
na.

AITOR GONZALEZ 11 urte



Pertsona bati inbidia
handia izatea dira
zeloak.

MIREN RAMOS 8 URTE



Amak nire ahizpari
musu bat ematen
dionean eta neri ez
sentitzen dudana.

AARON SEGURA 8 urte



Anaia bat duzunean
eta amak berari
bota beharrean zuri
botatzen dizunean
bronka sentitzen
duzuna.

LOINAZ POLO 14 URTE



Pertsona bat maite
duzunean eta bera
beste pertsona bate-
kin interesatua dago-
nean sentitzen duzu-
na.

ALAZNE PEÑAGARIKANO 14 urte



Pertsona batek beste
batengatik sentitzen
duen amorrua.
Lagun onak direnak
elkar gorrotatzen
amaitzen dute.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?



ALBERTO ARBERAS
7 urte


"Autoa gidatzeko bai-
mena atera eta Opel
bat erosiko nuke. Baina
ez nintzateke abiadura
handian ibiliko, ze arris-
kutsua da".

GURUZNE URKIDI
13 urte

"Lagunekin zapatu
gabian urten eta gaupa-
sa ingo nuke eta oportre-
tan kanpora jungo nint-
zateke kuadriliakin. Oin
ondo pasatzen dogu
baina gehixo urtetzia
gustauko jatan".



3. Zenbat lauki ilundu ditugu irudia egiteko?



4. Asmakizunak

- Zer dela eta zer dela harantz doana eta ibiltzen ez dena?
- Horman gora doa galdara ipurdian daramala.
- Ni sartzen naizen etxean entzun ohi da negar zotina.

*Igandean, ekainak 14, Sanmigeldarren eguna da. Urtero auzokide bati omenaldia egiten diote eta aurten Fernando Loiolaren txanda da. Fernando Sagarraga base-
rrian jaio zen duela 39 urte eta horietatik 21 Mendaroko Kilimon futbol taldean eman ditu. Bertsotan ere aritzen den gizon honekin izan gara horrenbeste urtetan irau-
teko futbolak zer eman dion jakin nahirik.*

FERNANDO LOIOLA

“Azkenengo partiduan zisko inda amaitxu naban penaren penaz”

– Aurten laga berri duzu futbola. Urte asko, ezta?

- Bai, jende gitxi egongo da hainbeste urtian mantendu izan dana futbol talde berdian, nere kasuan Mendaroko Kilimon futbol taldian.

– Halere, hasi Elgoibarren hasi zinen.

- Bai, baina infantiletatik alebinetara pasatzeko garai-a ailegau jatanian Elgoibarren ez nakan aukerarik segitzeko eta Mendaron taldia sortzen ari zianez bertara jun nitzan. Eta oin arte.

– Horrenbeste gustatzen al zaizu futbola?

- Asko, beti gustau izan jata. Nere anbiziua ez da izan talde inportantietan jokatzia, neri batez ere gustatzen jatana taldian sortzen dan girua da eta Kilimoian benetan giro berezixa dao.

Ekipo gitxitan egongo da Kilimoian dauan girua eta horrek asko lotzen zaitxu, gustura egotia oso inportantia da.

– Zailtasunak al dituzue taldea mantentzeko?

- Mendaron bai, ze ez dao jubenilen talderik eta dakagun zelaixakin eta presupuestua ere bajua danez, hara jutia asko kostatzen jako jendiari. Hala ere, probatzen dabanari gero kostau itxen jako lagatzia.

– Aurten jokatu duzu azken partidua.

- Bai, eta benetan esango dizut, amaitxu nabanian zisko inda geratu nitzan. Pena haundixa nakan jokatzen naban azkenengo partidua zalako. 26 urtekin ezkondu nitzanetik ibili naiz futbola laga nahixan, baina ezin. Aurten laga dot baina entre-

nadore laguntzaile bezela edo segitzia pentsatzen dot. Behintzat, era batera edo bestera, taldiari lotuta.

– Talde txikia izanik, dena zuek egin behar izan al duzue?

- Gertatzen dana da Mendaro herri txikixa dala eta zuzendaritzan urte askuan ibili da jende berdina. Normala da jendia aspertu eta erretzia eta, relebua, jende berrixa eskatzia. Iaz egon zan momentu bat inor prest ez zauana eta hiru jokalaria beteranok esan genduan lagunduko genduala.

– Gustatzen al zaizu futbola ikustea?

- Nahixao dot lelengo mailako ekipuen partidua baino herri mailakuak ikustia, jubenilak, regionalak eta hola... Neretzat askoz emozio gehixo dake eta enkanto berezi bat.

– Mundiala hasi da. Favoritorik?


- Jende guztixak esaten dau Brasilek irabaziko dabala baina nik pentsatzen dot zorte piskatekin Espainiak sorpresa bat emango dabala.

– Futbolaria eta betsolaria. Hau ere afizioz?

- San Migelen Ziarda ibiltzen zan eta inor ez zan atrebitzen hari erantzuten. Ni hasi nitzan eta ondo edo gaizki, erantzuteko bezela defenditzen naiz behintzat, eta afarixetan beti prest nao bertsotan itxeko, asko gustatzen jata.

– Igandean omenaldia eskainiko dizute. Iusiorik?

- Norberan auzokidiek holako omenajia itxiak beti itxen dau ilusiuua nahiz eta badauden beste asko ni beste edo gehixo merezi dabanak.





Eta administrazioan, zer diote legeek?

Komunitate Autonomoan eta Nafarroako zonalde 'mixto'an eta 'vascofono'an, edozein administrazioaren aurrean (POSTA, INEM, HAZIENDA,...) euskaraz mintzatzeko eskubidea aitortzen digu legeak. Iparraldean eta Nafarroako eskualde ez 'vascofono'an, legeez ez dugu inolako eskubiderik euskarari dagokionean.



Eta hartzen nauen funtzionarioak euskaraz ez badaki, eska al dezaket beste funtzionarioen bat edota itzultzailea?

Itzultzailea eskatzeko eskubide osoa daukagu. Halere, garbi izan behar dugu ezin dugula funtzionario bat euskaraz egitera derrigortu. Inork ez baitauka euskaraz jakiteko obligaziorik.



Eta euskaraz dakienik ez dagoela erantzuten badidate, zer egin dezaket?

Bi kasu bereizi behar ditugu: bat, administrazioak eskatuta baldin bagoaz, eta bi, gure interesezko arazoengatik bagoaz. Lehenengo kasuan, itzultzaile edo euskara dakienik ez bada, alde egin dezakegu protesta idatzia aurkeztu ondoren. Bigarren kasuan, berriz, gure protesta formala idatziz aurkeztu ondoren, gure eskaria edo-eta arazoa euskaraz idatzita aurkez dezakegu, hau onartzera beharturik baitaude.



Administrazioan euskaraz aurkeztu ditugun paperak itzultzeko eskatzen badigute, egin behar al da?

Komunitate Autonomoan ezin dizute itzultzeko eskatu, administrazioak berak egin beharko du, behar izanez gero.



Paper edo notifikazioen bat erdaraz iristen bazait, zer egin dezaket?

Legeak aitortzen dizu paper nahiz jakinarazpen edo notifikazioak euskaraz jasotzeko eskubidea. Beraz, erdaraz jasotakoa bueltatu dezakezu, euskaraz jaso nahi duzula adieraziz. Beti ere protesta formala instantzia baten bidez eginez, instantzia aurkeztuz gero jakinarazpenaren ondorioak indargabetu egiten baitira.



A

Algaz...
 Ezkerrekoa Orraindi baserriko **Marta** ... a di...
 eta bestea Iriarte-Etxeberriko **Maria Arakistain**. Bial
 daude hilda.


Horren dotore jantzita egoteko, domeka edo jairei
 bat izango zela pentsa daiteke. Abrigoek, zapatek et
 orrazkerek garai hartako jazkera eta 'moda' nolakoal
 ziren erakusten digute. Begiratu Mariak daraman ma
 kilari, ondo landutakoa eta polita ematen du.

ra
 ku
 gu
 dit
 ita
 lata
 dira



| | |
|--|---|
|  <p>ELGOIBAR</p> | <p>KAROBI TABERNA</p> <p>Tel. 943 74 06 37 San Frantzisko, 37</p> |
|--|---|

| | |
|---|---|
|  <p>karkizano</p> <p>San Frantzisko 12-14 - Tel. 943 74 05 49</p> |  <p><i>Arrieta</i></p> <p>San Bartolome, 18 Tel. 943 74 08 49</p> |
|---|---|



TEXTIL
 HOGAR
 LAGU-

Orain San Roke

17 jarduera ezberdin antolatu ditu Patronatuak Udako Kirol Kanpainarako

Besteak beste, belar hockey-a eta orienting-a haurrentzat dira aurtengo berrikuntzak

Udal Kirol Patronatuak urtero antolatzen duen Udako Kirol Kanpainan hil honen 22an hasiko da. Hila-bete oso batez, 17 jarduera ezberdinetan aritzeko aukera izango da. Tenisa, eskalada, igeriketa eta patinaia dira urtero estimazio handiena izaten duten kirolak. Baina kirol eskaintza askoz zabalagoa da. Aipatutako kirolez aparte, mendiko bizikleta, surfa, piraguismoa, haurrentzako aerobika, orienting-a, waterpolo, rugbya, belar hockey-a, gimnasia erritmikoa, kainoi jaitsiera, puenting-a eta haitzuloetara irteerak osatzen dute 98ko udarako kirol eskaintza.

Udal Kirol Patronatuko zuzendariak esan digunez, Eskolarteko Kirolen programaren barruan orienting-ak eta belar hockey-ak izan duten arrakasta ikusita, udako kanpainan ere kirol hauek sartzea erabaki dute. Orienting-a mendian zehar egiten da. Erreferentzia puntu batzuk markatu eta brujula baten bidez haurrek puntu horiek topatzen saiatzen di-

ra. Belar hockey-a ere jarduera berria da. Waterpolo, haurrentzako aerobika eta rugbya ere aurten eskaintzen dira lehen aldiz. Waterpolo Kiroldegiko igerilekuan izango da astearte eta ostegunetan eguerdiko 13:00etatik 14:00etara. Hor-taz, bazkideentzako igerilekura sarrera eguerdiko 13:00ean itxiko da egun horietan.

Kainoi jaitsiera, puenting-a eta haitzuloetara irteera

Irteerei dagokienean, naturarekin lotutako irteerak antolatu dira. Kainoi jaitsiera Arabako La Leze inguruan egingo da egun osoko irteeran. Prezioa 5.000 pta.koa da. Oñatiko Araotz inguruetan puenting-a eta haitzuloetara irteera egingo dira. Bi kirolak egun be-



Ikastaroetan izena emateko epea hilaren 18an amaituko da.

rean egin daitezke edo puenting-a soilik egun erdiko irteeran. Bi kirolak 4.000 pta.n eskaintzen dira eta puenting-a 2.500 pta.n. Patronatuko zuzendariaren esanetan, “prezioak oso ondo daude, edozein poltsikotara egokitze-ko modukoak, hasi 1.500 pta.tik 5.000 pta. ra bitartean 17 jarduera daude aukeran, haur, gazte eta nagusientzat”.

Izena emateko epea irekita dago hil honen 18ra bitartean. Argibideak eta izen-emateak 943 74 44 15 zenbakian.

Ekainak 21: Nahaste-Borrasteren 14. edizioa

Gaztetxoek partaidetza bultzatu nahi dute antolatzaileek

Kimetz Elkarteak Nahaste Borraste lasterketa herrikoia 14. edizioa antolatu du. Ohi den bezala, udan sartzen garen egunean izango da lasterketa, ekainak 21. Aurten domeka suertatu da, horregatik, eguerdiko 12:00etan hasiko da hiru kirol ezberdin konbinatzen dituen proba hau. Aurtengo edizioak bi berrikuntza nagusi izango ditu. Batetik, lasterketaren atarian, hilaren 18an, hain zuzen, Euskal Selektioari buruzko hitzaldia izango da. ‘Esait’ delako Euskal Selektioaren aldeko iritzi taldeko kideek eta herriko zenbait kirolariek euren iritziak plazaratuko dituzte arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxean izango den saioan. Bestetik, Nahaste-Borraste gaztetxoek artean finkatu beharra dagoen irizikoak dira antolat-



Martin Dominguezek irabazi zuen iaizko edizioa. Aurten ez du parte hartuko.

zaileak. Horregatik, “aurten 10 eta 14 urte bitartekoek proban, zakuaren pisua 10 kilotik 5 kilora jaitea erabaki dugu”. Honez gain, Dakintak egindako marraz-

kia daraman kamiseta oparitu-ko zaie partehar-tzaile guztiei eta ondoren bazkaria izango da Kimetz Elkartearen. Gogoratzea komeni da lasterkari guztiek kaskoa eraman beharko dutela. Izena emateko eskoletan zuzenean apuntatu edo, larunbatean (hilak 20) eguerdiko 12:00etatik 14:00etara edo igandean bertan, (hilak 21) goizeko 9:00etatik 12:00etara bitartean Kimetz elkartearen.

14 urtetik beherakoek proba eguerdiko 12:00etan hasiko da Kimetz Elkartearen. Nagusien irteera Plaza Handian izango da gaztetxoek lasterketa amaitu bezain pronto.

Liga Nazionalera igo da futboleko jubenil taldea

Bi urtez jarraian lortu dute kategoriaz igotzea

Euskal Ligako jubenil taldeak denboraldi bikaina egin du. Pedro Santiagok entrenatzen duen taldea iaz Euskal Ligara igo zen. Santiagok esan digunez, “printzipioz gure asmoa kategorian mantentzea zen. Lehengo buelta oso ona izan zen, denbora askoan sailkapen-buru izan ginen. Bigarren bueltan, kanpoan partidu bakarria irabazi genuen. Etxean, berriz, oso erregularrak izan gara, denboraldi osoan bi partidu baino ez ditugu galdu”. Maiatzaren 1era ko kategoria igoera eskuratuta zuten jubenilek. Halaber, Kopako partiduak jokatzeko sailkatu ziren. Final zortzirenetan, joaneko partidua 1 eta 0 galdu zuten eta bueltakoan, azken hiru minutuetan Antiguoko taldeak bigarren gola sartu zuen, 2 eta 1 izan zelarik emaitza.

Liga Nazionalean

Datorren denboraldian Liga Nazionalean arituko dira jubenilak. Kontrariorik gogorrenak Real Sociedad eta Athletic bezalako taldeak izango dira, “klub handiek filialak dituzte maila honetan eta etsai handiak dira”. Dena den, datorren denboraldian Santik



Jubenilek denboraldi bikaina egin dute, urte osoan bi partidu bakarrik galdu dituzte etxean.

ez ditu jubenilak entrenatuko, “taldea lagatzeko asmoa daukat baina ez kluba”. Entrenatzaile berriaren zereginen artean taldea osatzea izango da, 10 edo 12 bat jokalarik jubenilen adina gainditzen baitute eta erregionalera pasatuko dira. Horietatik badira Haundin jokatzeko adinako kalitatea dutenak. Santiren ustez, “zortzi jokalaria Haundin egoteko moduan daude, hala ere, ez dakit zenbaterik lortuko duten ekipoa sartzeara”. Liga Nazionalean arituko den taldea lehen urteko jubeniletan dauden mutikoeekin eta kadeteetatik igoko direnekin osatuko da”. Erronka gogorra dauka datorren denboraldian jubenil taldeak baina azken urteotan egin dituzten denboraldi apartak ikusita, edozer lortzeko gai direla erakutsi dute.

Txuskoren omenezko I. Enduro Txapelketa antolatu da

Albitxurin izango da hilaren 14an eta 8 herritarrek hartuko dute parte

“Memorial Txusko” izenpean, Txusko Moto Klubak Elgoibar Herriko I. Enduro Txapelketa antolatu du domekarako, hilak 14. Enduro motako motorren txapelketa hau Albitxuriko zelaian prestatutako ibilbidean jokatu da. Antolatzaileek esan digutenez, herriko 8 motorzalek hartuko dute parte txapelketan. Goizeko 9:00etan partehartzaileen zerranda kale-ratuko da eta ordu laurden beranduago, *briefing* delakoari hasiera emango zaio. 10:00etan lehen hiru moto-gidariak irtengo dira. Sailkapenaren berri 14:30ean emango da ezagutze- eta segidan sari banaketari ekingo zaio. Aurreko egunean, hilaren 13an, hain zuzen, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean parke itxian aritzeko eta bilbidea egiaztatzeko aukera izango dute gidariek.



● Tania Lamarca txapeldun olinpikoa, gimnasia erritmikoko erakustaldian

Hilaren 20an, Ibai Kirol Elkarrekin antolatuta, gimnasia erritmikoko erakustaldia izango da Kiroldegian arratsaldeko 16:00etan. Eibarko, Donostiako, Soralezeko, Ermuko eta Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko gimnastek hartuko dute parte erakustaldian. Ekitaldi honetan gonbidatu berezi bat izango da, ‘Atlanta 96’ Joko Olinpikoe-tan txapelduna izan zen Tania Lamarca gasteiztarra, hain zuzen.

● Hilaren 20an jokatuko dira Lagunak Txapelketako finalak

Datorren zapatuan, hilak 20, Lagunak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira Plaza Handian. Final aurrekoetan honako hauek sailkatu dira: benjamin aurrekoetan Josu Rodriguez, Jabier Salazar, Patxi Larrea eta Ibai Oiarzabal. Benjaminetan, Iker Txurruka, Mikel Elustondo, Asier Larrea eta Asier Guemez. Alebinetan, Haritz Iriondo, Eneko Ulazia, Aitor Agirrebeña eta Josu Larrañaga. Azkenik, kadeteetan, Joseba Arrillaga, Arkaitz Bernedo, Egoitz Alkorta eta Jabier Barrasa.

Joan den ostiralean jokatuako partiduen emaitzak dira ondorengoak:

Benjamin aurrekoak:
Konde **18** - Mendibil **11**
P. Larrea **15** - Salazar **18**
Oiarzabal **17** - Rodriguez **28**
Alebinak:
Ulazia **18** - Larrañaga **2**
Kadeteak:
Alkorta **18** - Barrasa **3**

Trinitate Jaiek oso harrera ona izan dute Udalaren ustez

Arrakasta izugarria izan zuen, batez ere, Bandaren dantzaldiak

Udal Kultura Saitetik aditzera eman digutenez, “oso pozik gaude Trinitate Jaietan antolatutako ekintzek izan duten erantzunarekin. Bandaren dantzaldia delata izan dira txalorik handienak”. Musikeskolaren dantza jaialdian, Bandaren dantzaldian, Artisau Azokan, Haurren Tanborrada ikusten, eta orokorrean ekintza guztietan jende mordo ibili da. “Estimazio handia izan dute baita ere, Aita Agirren jarritako barrakek”. Zapatu goizean barraketan doan ibiltzeko aukera ederki aprobetxatu zuten haurrek, nahiz eta izugarrizko ilarak sortu ziren tiobioetara igotzeko. Udal ordezkariaren esanetan, “jende gutxien erakarri zuen ekitaldia domeka arratsaldeko kantaldia izan zen”. Anje Duhalde eta Zigor Gazkez aritu ziren kantari Plaza Handian baina “espero baino jende gutxiago hurreratu zen, nahiz eta Kultura Batzordean kantautoreak ekartzeko eskaizuna jaso genuen”. Aurtengo Jaiek 3 milioi inguruko aurrekontua izan dute.

Omenaldia Dultzaineroei

Zapatu arratsaldean Musikeskolako dantza adarreko ikasleek eskaini zuten euskal dantza saioaren amaieran, iaz 25 urte bete zituzten Herriko Dultzaineroei omenaldia eskaini zitzairen. Udalaren, Musikeskolaren eta Haritz Dantzari Taldekoen izenean oroigarriak jaso zituzten. Dultzaineroek, berriz, Haritzen 25. urteurrena gogora ekarriz, opari bat eman zioten Jose Inazio Sarasuari.

Dantzaldi arrakastatsua

‘Beste bat, beste bat!’ Horrela amaitu zen zapatu gaueko Bandaren dantzaldia. Azken pasodoblea jo ondoren, beste pieza bat eskaini behar izan zuten bandakideek herritarren dantza-gosea astetzeko. Era guztietako eta adin guztietako jendea ibili omen ziren.





Antzerkiaren magia dela medio

San Bartolome Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek Deba Beheko Antzerki Topaketetan hartu dute parte "Magia dela medio" izeneko antzezlarekin. 13-14 urteko neska-mutil hauek Edurne Lasak zuzentzen duen antzerki tailarrean dabilta eta antzezlari hau nola prestatu duten kontatu digute.

Hamalau neska-mutil aritu dira "Magia dela medio" antzezlana prestatzen. Aste Santu ostean hasi ziren antzerki tailarrean eta bi hilabete hauetan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute orain gutxi izan berri diren Deba Beheko Antzerki Topaketetan. Rosa Maria Acero da "Magia dela medio" obraren egilea. Neska-mutil hauek kontatu digutenez, "antzezlana jolas moduko bat da. Ume batzuk sorgin batengana juten dia eta honek lagatzen dien liburu batetik ipuin klasikoetako pertsonaiak hasten dira ateratzen: Superman, Txanogorritxu, Edurne Zuri...". Une horretan, gainera, antzezleak publikoarekin nahasten dira, "jende artera urtetzen gera eta antzezlarian parte hartzen dabe era batera edo bestera". Kontua da, esan digutenez, "pertsonaia horiek euren keak azaltzen dizkietela sorginari. Esate baterako, Txanogorritxuren otsoak nazkatuta dagoela esaten dio, ez duela beti otso gaiztoa izan nahi. Supermanek, berriz, egun osoa hegan egiten eta gauza zailak konpontzen egoteaz aspertuta dagoela esaten dio. Eta Edurne Zurik ipotxentzat kozina-tzen gehiago egon nahi ez duela azal-tzen du".

Ipuin klasikoak hankaz gora

Antzezlari arina da, oso erraz ikusten dena eta betiko ipuinetako pertsonaiak hankaz gora jartzen dituen. Hala ere, bukaeran guzti-guztiak liburuan sartzen dira berez diren bezala, ezer

aldatu gabe.

Antzerkia egiten gustura ibili omen dira gaztetxo hauek, "bakoitzak nahi zaban pertsonajia aukeratu zaban eta kasualidadez bi edo hiruk berdina nahi bazaben, zozketaz erabaki genduan". Edonola izanik ere, kontua da epe aldetik justu xamar ibili zirela antzezlana prestatzeko, "Topaketetarako prestatu bihar genduan dana eta ez zakagun denbora gehixegi, baina azkenian ondo urten da dana". Dekoratu sinpleak erabili dituzte, "ez dogu ezer berezirik preparau, entsaiatzeko zakagun materialakin in dou dana, marrazki berri batzuk ere in genitxun, izar batzuk jarrri, pezera bat... Ondo geratu zan".

Gehien-gehien kostatu zaiena "gidoia ikasi eta pertsonaian papelian sartzia izan da ze askotan gure jestuak itxen genitxun eta ez ginan konturatzten beste pertsonaje bat ari ginala in-

terpretatzen".

Efektu bereziak

Eibarren ezezik, Debako Ikastolan ere izan dira euren antzezlana aurkezten eta atzo, hilak 11, Mendaron izan ziren. Esperientzia polita izan da eta Edurne Lasak esan duen bezala, "oso elementu gutxi erabiliz benetan gauza politik eta aberasgarriak egin daitezkeela ikusi dute". Izan ere, antzezte ezezik beste zenbait gauza ere egin behar izan dute. Esate baterako, "Ikastolako irratixan musika eta efektu bereziak grabau genitxun, koreografia ere euki dou, dantza in, pertsonai batek abestu itxen dau...". Momentuz ume txikien aurrean bakarrik antzeztu nahi dute baina batek daki aurrera begira ikasle hauen artetik aktore profesional aterako ote den!



Goitik eta ezkerretik hasita: Aitzol Gonzalez, Eukene Gil, Edurne Juaristi, Ander Mujika, Ion Zaldúa, Loinaz Polo, Amets Izagirre, Elisabeth Benito, Maitane Oria, Iker zubiaurre, Ane Arregi, Andoni Etxabe, Leire Arevalo eta M. Jesus Granero.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia 943 74 34 74

12

ostirala

.....

19:00 GAZTE ASANBLADA
AREN BILERA
 Gaztetxean

22:00 KONTZERTUA
 "Half Foot Outside"
 Gaztetxean

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: "Suspect Culturel"
 Antzezlana: "Airport"
 Herriko Antzokian

13

larunbata

.....

10:30 GURASO EGUNA
 Ikastolan

17:00 KARATE ERAKUSTALDIA
 Kiroldegian

19:30-22:15 ZINEA
 "Torrente, el brazo tonto de la ley"

22:00 KONTZERTUA
 "Buma Buma Ye" eta
 "Ultratwist"
 Gaztetxean

14

igandea

.....

9:00 TXISTULARIEN GOIZ ERESIA

9:30 MORKAIKORA MENDI IRTEERA
 Irteera Plaza Handian
10:30 FINALISTA EGUNEKO MEZA
 San Pedron
Eguerdian, Finalista
 Eguneko domina banaketa
 Antolatzailea:
 Morkaiko M. E.

10:00 MEMORIAL TXUSKO I. ENDURO TXAPELKETA
 Albitxurin
 Antolatzailea: Txusko
 Moto Kluba

11:30 SANMIGELDARREN EGUNA
 San Migel auzoan

12:30 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
 "Torrente, el brazo tonto de la ley"

15

astelehena

22:15 ZINEA
 "Torrente, el brazo tonto de la ley"

18

osteguna

20:00 HITZALDIA
 Gaia: "Euskal selekzioa"
 Hizlariak: 'Esait' iritzi taldea eta herriko kirolariak
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Kimetz Elkarte

22:30 KONTZERTUA
 "Dut" eta Fermin
 Muguruza, eta, "Lif"
 Gaztetxean

19

ostirala

.....

19:00 GAZTE ASANBLADA BILERA
 Gaztetxean

20:30 HITZALDIA
 Gaia: Reiki, eskuekin sendatzeko teknika
 Kultur Etxean

22:15 ZINEA
 "Amistad"

ZINEA



Zuzendaria: Santiago Segura.
Antzezleak: Santiago Segura, Neus Asensi, Tony Leblanc.

Torrente, el brazo tonto de la ley

Santiago Segura espainiar polizia matxista, arrazista, fazista eta alkoholikoa da, eta gainera, Athletic de Madrid taldeko zaletu amorratua. Poliziaren aita erroberadun aulkian dago eta euren arteko harremanak ez dira oso onak. Bere auzokideak ere, zein baino zein xelebregoa dira. Polizia handien gisa, droga trafikoko sare bat ikertzen hasten da gazte batzuen laguntzaz.

Antzerkia

UDAL
KULTURA
SAILA



Suspect Culture

Antzezlanak: Airport

Eguna: ekainak 12

Ordua: 22:30

Herriko Antzokian



Suspect Culture, Britainia Handiko Glasgow hirian 1995ean sortutako konpainia da. Bertan izandako arrakasta ikusita, tailer batzuek antolatutako zituzten, horietako bat Madrilan. Tailerretan parte hartu zuten Estatuko bi aktore eta Euskal Herriko bat konpainiaren azken lanean hasi ziren lanean, *Airport* antzezlanean, alegia. Estatuko aktore

hauen integrazioarekin, *Airport* proiektu ele anitza bihurtu zen, ingelesa, gaztelania eta euskara bateratzen zituen. 97an, Sarobe Arte Gunearekin harremanetan jarri Euskal Herri osoan bira bat antolatu zuten. Antzezlan bitxia eta trama arinekoa da.

● *Dut eta Fermin Muguruza* Gaztetxean

Gazte Asanbladak hiru kontzertu antolatu ditu. Gaur, hilak 12, *Half Foot Outside* taldea izango da Gaztetxean. Bihar, hilak 13, Bilbo inguruko bi taldek kontzertua emango dute: *Buma Buma Ye* eta *Ultrawist*. Bi kontzertuok gaueko 22:00etan hasiko dira eta ez da sarrerarik egongo.

Datorren ostegunean, hilak 18, *Dut eta Fermin Muguruza* batera joko dute Gaztetxean gaueko 22:30ean hasita. Elkarlanean kaleratutako diska aurkeztuko dute. Hauekin batera *Lif* izeneko taldea arituko da. Sarrera 500 pta.koa izango da.

● Fernando Loiolari omenaldia Sanmigeldarren Egunean

Domekan, hilak 14, Sanmigeldarren Eguna ondo hasteko, 11:30ean meza izango dute auzoko ermitan. 12:30ean San Migeleko V. Banakako Esku Pilota txapelketaren finala jokatu eta sariak banatu ostean, otordua egingo dute. Ondoren, Fernando Loiolari omenaldia egiteko, gaztetxoaren ibilaldirako otarren zozketa egingo da.

● Karate erakustaldia

Bihar, hilak 13, Olaizaga Kirol Taldeak antolatuta, karate erakustaldia izango da arratsaldeko 17:00etatik aurrera Kiroldegian. Olaizaga Kirol Taldeko karateka guztiak hartuko dute parte. Ez da sarrerarik kobratuko.

OSASUNKUME JAIAREN EGITARAUA

Igandea, 14

10:00 Diana Txistulariekin.

11:00 Kiki, Koko, Moko eta Flash.

12:30 Takolo, Pirritx eta Porrotx.

14:00 Eskola Lehiaketako sari banaketa.

16:00 Inazio Bereziartua
Musikeskolako ikasleen kontzertua.

17:00 Erraldoi eta buruhandiak trikitilariak alaituta.

18:00 Oparien zozketa.

18:30 Taupada antzerki taldearen "Tandem Zirkus" antzezlanak.

18:30 Mauxitxarekin kalejira.

Ekitaldiok Plaza Handia eta Nafarroa Plaza bitartean izango dira.

Euria egingo balu ekitaldiak Ikastolako frontoian izango lirakeke.

● Finalista Eguna hilaren 14an

Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero antolatzen duen Finalista Eguna ospatuko da domekan, hilak 14. Goizeko 9:00etan Udala Txistulariek goiz eresia joko dute. Ordu erdi beranduago Morkaiko aldera irtengo dira mendizaleak Plaza Handitik. San Pedrorra 10:30ak aldera iritsiko dira eta meza entzungo dute jarraian auzoko elizan. Eguerdian partean, 12:30ean, hain zuzen, Finalista Eguneko domina banaketari ekingo zaio. Aurten 80 bat mendizalek jasoko dituzte dominak. Urtero bezala honako kategoria hauek egongo dira: 10, 15 eta 20 mendi egin dituztenak, hainbat tontor igo ondoren 20.000 metro eta 40.000 metrora iritsi direnak, eta azken lau urteotan 100 menditara igo direnak. Azken hauek Euskal Mendizale Federazioak ematen duen diploma berezia jasoko dute. Domina banaketa amaitu ondoren, nahi duen guztiak San Pedro jatetxean izango den bazkarian parte hartu ahal izango du. Arratsaldean jolasak egongo dira haurrentzat.

T R A N D A R R

FARMAZIAK

| | Egunez | Gauetz |
|----|------------|----------------------------------|
| 13 | Yudego* | Escala |
| 14 | Yudego* | Escala |
| 15 | Bidasolo | Bidasolo |
| 16 | Etxeberría | Etxeberría (Santa Ana kalean) |
| 17 | Anduaga | Anduaga |
| 18 | Yudego | Yudego |
| 19 | Zabaleta | Zabaleta |

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

14 igandea Foteru

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola S.L. Egurak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 4 12 56 - (mobila) 909 53 23 83



Lana

◆ **ESKAINZA** ◆

◆ Publizitate saltzaile bat behar da Jardun Kultur Elkartearen (Bergara) proiektu berezi bat bultzatzeko. Bidali curriculum-ak ekainaren 22a baino lehen helbide honetara: Jardun Elkartea, Kartzela Zaharra, Juan Irazabal kalea, z/g. 20570 Bergara. ☎ 943 76 08 19

◆ Neska euskalduna behar da umea zaintzeko. ☎ 943 74 35 31 (18:00etatik 21:00etara deitu)

◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 943 74 01 80

◆ Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. ☎ 943 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)

◆ **ESKAERA** ◆

◆ Uztail-abuztuan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo tabernan. ☎ 943 74 43 16 (Marimar)

◆ Barne Merkataritzan titulatu eskaintzen da dendan lan egiteko Ermua, Eibar edo Elgoibarren. ☎ 943 74 10 09

◆ Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko (esperientziarekin). Beste lan batzuk ere egingo nituzke. ☎ 943 74 15 74 (M. Carmen)

◆ Neska eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanetan. ☎ 943 75 51 93

Garajeak

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ 943 74 17 01 (Aitor)

◆ Garaje itxia saldu edo alokatzen da Arregitorren. ☎ 943 74 12 53

◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 943 74 12 04

Bestelakoak

◆ Urasandiko parkean umeen txandak txaketa berde-urdina hartu nuen konfusioz. Udaltzaingoaan lagatu.

◆ Katu siamesa galdu dut Pedro Muguruza inguruan. Norbaitek topatu badu mesedez dei dezala 943 74 17 87 zenbakira.

◆ Rolling Stones taldearen kontzerturako autobusa ekainaren 18an, arratsaldeko 19:00etan aterako da Sigmako zubitik. Izen ematea **Kaia** kafetegian.

Etxebizitzak

◆ Etxea salgai Soraluzen. 62 m², eguzkitsua, egoera onean eta merkea. ☎ 943 12 18 20

◆ Etxe bat alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ 943 74 01 59

◆ Pisua salgai Santa Ana 6-4-eskuman. Igogailua eta ganbara ditu. 100 m². ☎ 943 4 11 05

◆ Pisua salgai Deban, atikoarekin. Garajea aukeran, Kiroldegi inguruan. ☎ 943 19 20 73

◆ Jakan (Membrilleras-en), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31

◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da. Igerilekua, parking-a, garbigailua eta telebista ditu. ☎ 943 74 20 31 (uztaileko 2. hamabostaldia eta abuztuko lehen hamabostaldia)

Agurak

◆ Zorionak **Larraitzi** hilaren 17an 12 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Iskanderren partez, egun ederra igaro dezazula.

◆ Zorionak **Antonio "aftershave"** ekainaren 5ean 16 urte bete zituelako. Monchito, Rockefeller eta Macarioren partez.

◆ Zorionak **Jokin Aizpitarte Gokoetxeari** bere 8. urtebetetze egunean. Zorionak eta musu asko aitaxo, amatxo eta Lorearen partez.

◆ **Jokin Aizpitarteri** zorionak Iker eta Aitor Arrillagaren partez hilaren 13an 8 urte beteko dituelako.

◆ **Leire Alvarez** zoriondu nahi dugu bere 12. urtebetetze egunean. 6. mailako kuadrilakoak. Ea hazten zaren, animo!

◆ Zorionak **Maddi Mendibili** ekainaren 10ean urte bat bete zituelako. Ainhoa, Olatz, Mikel eta Ibairen partez.

◆ Zorionak **Francisco Fidalgori** hilaren 14an urteak beteko dituelako. Semeen partez eta Ekaitz, Igor, Iker eta Unairen partez.

◆ Superzorionak **Antonio Conde**ri bihar, hilak 13, urteak beteko dituelako. Bere emazte eta Cristina eta Amaiaen partez.

◆ Zorionak **Jose Alfonso Jabier** antzezleari bere bihotzeko mutila lortu zuelako larunbatean. "¡Al ataque!".

◆ Zorionak **Oihana Apellaniz** astelehenean 15 urte beteko dituelako. Gurasoak eta ahizpa potxola.

◆ Badakigu berandu dela. Zorionak **Andres Gallegori** Janire familia artera ekarri duzulako. Ikastolako 5. mailakoen partez.

◆ Zorionak **Ibareri** igandean 3 urtetxo egingo dituelako. Leireren partez.



◆ Zorionak **Ki-metzi** hilaren 14an urteak beteko dituelako. Etxekoan eta bereziki zure anaia Imanolen partez. 10 tirakada belarritik! Zorionak baita ere Leire, Itsaso eta Larenen partez.

◆ Zorionak **Mai-der Oñederrari** hilaren 11n 10 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Miren Lahozi** ekainaren 14an urte bat beteko duela, gurasoen partez.



◆ Zorionak **Monika "Tecno-house"** eta **Izaskuni**, hain ondo ikusten den horri. Zer, beldurra ematen al dizu **BARREN**en agertzeak, ala? Berandu izan arren, zorionak zuen lagunaren partez.



◆ Zorionak **Patxi Vazquezi** igandean, hilak 14, 21 urte beteko dituelako. Bere familiaren partez, bereziki anaia Rubenen partez.



◆ Zorionak **Soraya Cidi** ekainaren 10ean 11 urte bete zituelako. Miriam, Aina, Sara, Elena eta Aneren partez. Ea ondo pasatzen dugun zure ospakizunean.



◆ Beno, jaitsiko ote zaizkizu halako batean ile horiek! Segurueenez 5.000 laka-pote erabiliko zenituen, baina zuk jakingo duzu zertan ari zaren. Beno, **"Tijatinitire"**, zorionak hain famatua zarela. Zeinen partez ote?



◆ Zorionak **Veronica Bellori** hilaren 10ean 19 urte bete zituelako. Guraso eta anaiaen partez.



Agurak



◆ Zorionak **amatxo**, gaur, hilak 12, urteak bete dituzulako. Zure alaba Alasne eta Maitaneren partez.

◆ Superzorionak **Amaia Saenzi** hilaren 14an 12 urte beteko dituelako. Guraso, aitona-amona eta osaben partez. 6. mailako kuadrilakoek egun ona igaro dezazula opa dizute.




◆ Zorionak **Asier Agirrego-mezkortari** gaur, hilak 12, 3 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.

◆ **Lorena Babarri** zorionak hilaren 10an 14 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki Ander eta Miriamen partez.



◆ Zorionak **gure sorginari** gaur, hilak 12, 4 urte bete dituelako. Oso ondo pasa dezazula opa dizu familia osoak.



◆ Zorionak **Jon Ander Avilari** ekainaren 15ean urteak beteko dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Leire, Joanes** eta **Maitaneri** ekainaren 3, 10 eta 11n urteak bete zituztelako. Ikastolako 5. eta 6. mailakoen partez. Maitaneri Mokoren partez. Zorionak Joanesi etxeko guztien partez.



◆ Zorionak **Jos-huari** hilaren 13an 6 urte beteko dituelako. Maialen eta Odeixuren partez, egun ona pasa eta ez biziatsu Play Station-ekin.



GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 943 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak - atek - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 943 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 943 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDOK S.L.

San Roke, 17
☎ 943 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 943 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94



KENSINGTON

UZTAILA

- 1, 2 edo 3 ordu
- Maila guztiak
- Bideoa - Ordenagailua -
Musika - Interneta

- INTENTSIBOAK
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
- UZTAILAREN 1 ETIK 30ERA
- METODOLOGIA LUDIKOA

98-99 IKASTURTEA

- INGELESA
- FRANTSESA
- ALEMANA
- ITZULPENAK



- Internet
- Multimedia

Cambridge Unibertsitateko
azterketetako kide ES-438
KET - PET - First Certificate
Advanced - Proficiency

MATRIKULA ZABALIK

ZATOZ!!

- 4 urtetik gorako umeentzat
- Metodologia ludikoa
- Cambridge Unibertsitatean
titulatutako irakaslegoa
- Talde homogeneoak
- 25 urteko esperientzia enpreetan
(Hobetuz subentzioa)



GIPUZKOAKO HIZKUNTZ
IRAKASLE ELKARTEKO
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR
TEL/FAXA: 943 74 02 36
TEL: 943 74 35 12
E-MAIL: kensington@redestb.es

EGUZKI AUZOA, 7
20577 ANTZUOLA
TEL: 943 78 70 30